

0-3 ESKABIDEAK BETETZEKO JARRAIBIDEAK

- **Eskabide bat** beteko da laguntza eragin duen **seme edo alaba bakoitzeko** (0-3).
- **Erditze anizkoitzaren** edo **adopzio anizkoitzaren** kasuan, **eskabide bakarria** beteko da erditze berean jaiotako edo aldi berean adoptatutako seme-alaba guztientzat.

1. Eskabide mota

Erditze anizkoitzaren, adopzio nazional anizkoitzaren edo nazioarteko adopzioaren kasuan, dagokion laukia hautatu beharko da, eta I. eranskina bete (4. orrialdea).

Nork aurkezten du eskabidea?

- **Interesduna:** Laguntza jaso nahi duen pertsona da, eskatzailea. Ama edo aita, harreragilea eta tutorea izan daitezke, semearen edo alabaren zaintza eta jagoletza esleituta duen familia-unitateko kidea bada.
- **Ordezkaria:** baldin eta interesdunaren ordezkaria beste pertsona bat bada. Kasu honetan, joan 5. orrira eta bete II. eranskina - "Ordezkaritza-baimena".

2. Eskatzailearen datuak

Abizenek eta izenek ZEHAZKI bat etorri beharko dute NAN edo AIZ agirietan agertzen direnekin.

- **NAN/AIZ/Pasaportea:** Eskatzaileak nazionalitate espainiarra duenean, bere NANaren zenbakia idatziko da. Eskatzaileak nazionalitate espainiarra ez duenean, AIZ (atzerritarren identifikazio-zenbakia) edo pasaportea adierazi beharko da.
- **AIT:** AIZ badauka eta, gainera, AIT agiria badauka (atzerritarren identifikazio-txartela), adierazi zenbakia.

3. Bankuko datuak

- Bete eskatzailearen banku-datuekin.
- Eskatzaileak **banku-kontuaren titularra** izan beharko du.
- Eskatzaile bakoitzak **kontu-zenbaki bakarria** eduki ahal izango du laguntza-lerro honetarako, eta laguntza hauetarako soilik erabiliiko da.
- Zure banketxea **EZ** bada: KUTXABANK, BANCO SANTANDER, LABORAL KUTXA, CAIXABANK, BBVA, SABADELL edo CAJA RURAL DE NAVARRA edo ABANCA, **kontuaren titulartasun-agiria aurkeztu beharko duzu.**
- **Identifikatzeko pasaportea erabiliz gero:** Zure banku-erakundea edozein dela ere, kontuaren titulartasun-agiria eta pasaportearen fotokopia aurkeztu beharko dituzu.

Zer da kontuaren titulartasunaren dokumentua? Erakundearen izena, banku-kontuaren zenbakia eta nortasun-zenbakia (NAN, AIZ edo pasaportea) jasotzen dituen banku-agiria.

4. Jakinarazpenetarako datuak

- Administrazioaren oharrak eta jakinarazpenak jasotzeko eskatzaileak hautatzen duen modua.
- Identifikazio-ziurtagiri elektronikorik ez baduzu, posta-komunikazioa aukeratzeko gomendatzen dizugu, bestela ezingo baitituzu eskuratu "Nire Karpeta" atalean zure esku jartzen diren jakinarazpenak:
- **Oharra:** 10 egunean jakinarazpen elektronikoan sartzen ez bazara, jakinarazpena ezetsizat joko da; hau da, izapidea egintzat emango da, eta prozedurak aurrera egingo du.

5. Eskatzailea ez denaren datuak

- Beste gurasoa (ama edo aita) edo beste harreragilea edo tutorea.
- Beste pertsona hori bada bete behar da soilik.

6. Dokumentazioa kontsultatzea/egiaztatzea

3. Eskatzailearen eta haren ezkontide edo bikotekidearen EAEko foru-ogasunetako zerga-datuak:

- Kontuan hartuko diren errenta-datuak **duela bi urteko** diru-sarrereri buruzkoak dira, hau da, iaz aurkeztutako errenta-aitorpenekoak.
- Honako kasu hauetan ezin izango da diru-sarrera fiskalei buruzko informaziorik lortu:
 - Bi urte lehenago zergak Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo ordaindu bazituen.
 - Identifikatzeko pasaportea erabili bada.
 - Azken hiru urteetan eskatzailearen nortasun-agirian aldaketaren bat izan bada (AIZA izatetik NANA izatera pasatu, izenaren grafia aldatu, abizenen hurrenkera aldatu bada, eta abar).

Horregatik, eskabidea egin baino bi urte lehenagoko errenta-aitorpena aurkeztu beharko du, edo PFEZri egotz dakizkiokeen diru-sarrereri ziurtagiria, dagokion administrazioak emana.

III. eranskina: Laguntza nork kobratuko duen adostea

Kasu honetan beteko da:

- Zaintza partekatua: Seme edo alabarengatik laguntza zein gurasok (ama/aita, hartzailea/tutorea) kobratuko duen zehazteko.

IV. eranskina: Zaintza partekatuko seme-alaben familia-errolatzea kontsultatzeko baimena

Kasu honetan beteko da:

- Zaintza partekatua: Laguntza eragin duen semea edo alaba ez dago eskatzailearekin errolatuta. Baimen horrekin, egiaztatuko da semea edo alaba beste gurasoarekin (ama/aita, tutorea, hartzailea/hartzailea) errolatuta dagoela.